

7. Zer alde onak izan ditu matrikulazio-prozesu berriak?

	Kopurua	%
Lana erraztu du	47	90
Matrikulazio-kanpainairi denbora gutxiago eskaini behar izan diogu.	17	33
Ikasle gutxiago galdu dugu bidean	6	11
Guztira	56	100

8. Zer alde negatiboak izan ditu matrikulazio-prozesu berriak?

	Kopurua	%
Prozesuaren kontrola galdu dugu eta ez dugu informaziorik izan dena bukatu arte	31	60

9. Eskola Publikoan matrikulatzeko Hezkuntza-sailak egin duen kanpaina eraginkorra izan al da? Zer balorazio egiten duzu?

	Kopurua	%
Oso eraginkorra izan da	4	8
Nahikoa izan da	11	21
Ahalegin gehiago egin beharko luke	25	48
Oso eskasa izan da	7	14
Lehenik sinistu behar du publikoaren alde egiteko	1	1,9
Eskola publikoa indartzeko kanpaina iraunkorra izan beharko zen ikasturtean zehar eta ez puntuale. Honekin esan nahi dudana da sailean bateren bat arduratu beharko zela ikastetxe publikoetan ematen diren, egiten diren, lorpenak kanporatzeaz.	1	1,9
Betikoa, kartelak eta prentsan besterik ez.	1	1,9
Ez da izan eraginkorra. Ikasle berriak ez dira lortu. Eta kanpaina kartelen bidez egin beharrean bakarrik, eskola publikoaren apostu integrala egin beharko luke. Agerian da ez duela egin gure eskualdean. Eliz barrutiko ikastetxe bati batxilergoa emanez, besteak beste.	1	1,9
Gure kasuan ez du garrantzirik, ikasle guztiak beste ikastetxe bakar batetik datozelako eta denak etortzen direlako	1	1,9

10. Matrikulazio-prozesu berria hobetzeko, zeintzuk dira zure proposamenak?

Informazioari dagokionez
Informazio gehiago jaso matrikulazio epe barruan.
Informazioa arinago izatea
Informazioa aurretik prestatuta izatea
Prozesuaren nondik norakoak denbora gehiagorekin ezagutzea, datak aurrean oso berandu jakin ditugu. Bestalde, matrikulatu zaizkigun ikasleen zerrendak ere astebete pasa arte ez ditugu eskura izan.
Lehenago jakin zenbat datozen guri LH tik atxikitutako zentruetatik
Mezu argiagoak eman
Informazio falta dekot akatsak bereizteko.
Gurera etortzekoak direnak eta etorri ez direnak jakin nora joan diren
Aukerakoak ez direnaren informazioa galtzen dela, argiagoko izatea
Datuak
Ikasleen datu guztiak sartuta egon behar dira aplikazioan, datu garrantzitsuak falta dira.
Matrikula epea zabalik dagoen bitartean aukera izatea datuak ikusteko, eta ez bakarrik epea bukatu ondoren.
Gure kabuz familia berriei baimena eskatu genien haien datuak kudeatzeko, eta hainbat informazio osagarria emateko; hori dela eta, prozesua azkarrago egin dugu.
Ikasleak azaltzen dira, ez dira sartu behar aplikazioan. Baina dokumentuak guk eskaneatu behar izan ditugu, eta erreferentziako ikastetxean ziur eskaneatu zituztela bere moemntuan, bekak direla eta. Aplikazioan gordeta dauden dokumentuak (eskaneatuta) matrikula egitean automatikoki ere azaltzea.
Ikastetxean matrikulatuta egongo den ikasleei buruzko datuak biltzeko aukera izatea; adibidez, jantoki eta garraioa, argazkiak, banketxeren datuak, liburu solidario programa aukeratuak duten... Datu guzti horiek, irailan baino askoz lehenago izan behar ditugu. Esate baterako, martxoan bertan garraioaren datuak aplikatibean sartu behar izango dira.
Hezkuntzako aplikazioak baliabide gehiago edukitzea
Nolabaiteko kontrola izan behar dugu ikastetxean bertan.
Datu babesa dela eta, IKASGUNEtik familia bakoitzak bere matrikulako datuak soilik ikusi.
Epeak
Gerta daitezkeen akatsak zuzen daitezkeen epea izatea
Otsailaren 28an baremazioak bukatzen direnetik martxoaren 21a arte behin behineko zerrendak ateratzen diren arteko epea murriztea, ikastetxean egin beharreko lanak aurreratu ahal izateko, idazkaritzan kurtso bukaerari begira egin beharreko lanekin pilatzen baita.
On-line
Jendeak Interneten bidez egiteko erraztasun gehiago ematea. Internetez bidez egiten behartzea, zentruz aldatu nahi badute.
Dokumentazioa aurkezteko on-line txertatzeko aukera ezarri
Beste batzuk
Formakuntza egokia
Hezkuntza Sailak diru publikoaren alde kokatu behar dela, irmoki.
Prozesua bera egokia izan da. Hezkuntza publikoa bere osotasunean gehiago bultzatu/zaindu beharko zen.
Eskola mapa aldatu, eskola kontzeiluaren puntuak azken momentuan ez aldatu...
Zonifikazioari buelta bat eman beharko liokete. Publikoa den aukerari bultzada eman.
Azken momentuko aldaketak ez egitea.
AMPAkoekin harremanetan jarri/ informazioa eskuratzeko..

11. Zerbait gehitu edo erantzunen bat gehiago zehaztu nahi baduzu hemen daukazu tokia

Positiboa

Idazkariek diote lasaiagao ibili direla.

Uste dot bidezkoagaoa dela modu honetan, guztiek esleipen bakarrean parte hartzea.

Negatiboa

Ikasle berrien dokumentazioa ezin izan dugu jaso matrikulazio epean gure barneko funtzionamendurako.

Indartu nahi dut informazioaren faltarena. Ez daukagu jakiterik ikastetxera etorri nahi duen norbait kanpoan gelditu den.

Familia liburuan eta errolda-dokumentazioan dagoen informazioa galtzen da, adibidez, gaurko helbidea ziurtatuta garraioa antolatzeko. Erljio edo balio etiko aukera ez dugu argi.

Oso goiz egiten da matrikulazioa. Aurreikusmenak (errepikatzaile kopurua) hain goiz egitea ez da fidagarria. Izan ere, 1. ebaluazioko emaitzak hartzen dira kontuan eta ondorengo ebaluazioetan aldatetak daude. Bestalde, behin prozesua amaituta ikasle asko ikastetxetik aldatzen dira.

Prozesua ondo dago, baina familiak ezagutzeko lehen harremana izateko aukera galdu egiten da.

Beste batzuk

Balorazio zuzenago bat egiteko, prozesu guztia amaitu arte itxaron behar izango dugu. Momentu honetan, ikastetxetik etorriko diren ikasle berriei eskatutako dokumentazioa biltzen ari gara.

Nire ustez familiei hezkuntza publikoan dugun profesionaltasuna, lan talde, familiekin bat egiten dugula eta euren seme-alaben hezkuntzan guztiok eragile baikorrak garela azpimarratzea garrantzitsua da. Nire uste xumean gure familiak hori asko eskertu dute.

Ez da erraza islatzea IPI bateko datuak galdetegian, azkenian badirudi taldeak mantenduko ditugula. Kuriosoa izan da Gopegitik Murgijara joango direla 6-8 gure ikasle nahiz eta garraiorik ez izan. (Badirudi Futbol taldearen eraginez)

Gure ikasleak kontzertatuetara joan dira. Batzuetan liga ezberdinetan jolasten dugula pentsatzen dut.

Matrikulazio kanpaina ikastetxean bertan LHkoekin batera antolatzen dugu, 6.mailako ikasle eta familiekin bilera informatiboak eta ate irekiak antolatuz. Gainera, kartelak, liburuxkak... gure kontu egin behar ditugu, diseinua, lana eta dirua suposatzen dutelarik. Laguntza eskatuko nuke, gure herrian kristau eskola dago eta konpetentzia itzela daukagu, kontuan harturik eurek dituzten marketinga eta baliabide ekonomikoak.